

GURE JAINKOA AHALGUZTIDUNA DA

Eta saiatuko naiz hori frogatzen, argirik geratzen bazait. Su-fritzen dudan nahieza mende hartu ahal badut. Eta nuen arnasestua, urteetakoa, arnasa hartu ezin bat konpondu dut, tran-kilizante baten albo ondorioa zena, hori kendu nuen san An-tonioren inspirazioz eta joan zait arnasa ezin hartu hura. Baina problemak ere problemak baditut ugari. Bakardade sentimen-dua da horietako bat, nire irakurle ugariak dakiten moduan.

Orain dela bi konfesio, gutxi gorabehera, konfesoreari adierazi nion nire zalantza, ahalko ote zuen Jainkoak agindu-takoa bete. Eta esan zidan holako galderak alde batera lagata jarraitu behar nuela nire fedearekin ordura arte bezala (gal-tzen eta gero errekuiperatzen argumentuekin?, eta holaxe in aeternum, diot nik). Baina fedea, kredo katolikoan adierazia, oso ikutua geratzen da zalantza badago gure Jainkoaren ahal-guztidun izaeraz. Eta nik bastante pasatu dut mundu honetan gero bestean oraindik txarrago pasatzeko, edo, baita, ezereze-ra pasatzeko, inesisten tziara ere. Eta horregatik insegurua naiz.

Ni gainera ikertzailea naiz bokazioz, estudiantea, eta kon-prenitzea dut gustuko, Trumpen aberastasunak baino gehiago. Eta postura egin nuen nire buruarekin hori estudiatu behar nuela, nahiz eta ilunaldi handiak hartzen ninduen.

Atzo arte. Nire definizioa mirariarena aintzat hartzen, has-ten da demostrazio hau (beti igual nabil, aldaerak egiten me-

lodia simple baten inguruan). Jesusek jakintza unibertsala du, eta erabakitzen ahal du bere baitan duen jakintza horrekin gertatuko dena, a priori. Mirarrietan ikasten da hori. Ez dago beste inor holakorik egiten ahal duenik. Ez bakarrik jakin gertatuko dena baizik eta erabaki, eta hori askatasuna kendu bari.

Ni ezagutzen nauenak badaki nik lehena, nire teoria teologikoetan, filosofia lehena dena, aurrena mirarien estudiantik ateratzen dudala, eta orain ere holaxe da, hori da nire ekarpen simplea.

Gero fijatu behar da Platonen dialogo batean, sendotasunaz ari dena. Eta hura irakurrita ikasten ahal da ezen ezagutza unibertsala duena, borrokan adibidez, infaliblea dela, hau da, borroka irabazten duela erraz ere erraz. Eta infalibilitate hori metodo berori erabiliz ikerketan, gai guztietara zabaltzen zaio halakoari, hau da, eta halako hori Jainkoa da, beraz gai guztietan zabaltzen zaio Jainkoari garaipena. Jainko bakarrari, gure Aita Zeruetakoari, kredoan erraten dugun moduan.

Eta Gloria otoitzean baieztatzen dugu gure Jainkoa dela santu den bakarra, Haren santutasuna dela lehena eta bakarra, Zeruan eta inon ez dio inork gaina hartzen, hain zuzen. Eta inork ez daki mirariak egiten Berak izan ezik. Zeren nire mirarien definizioan ez da ondorioztatzen bakarrik jakintza unibertsala duela halakoak egiten ahal dituen, baita ere ahala duela horretarako ondorioztatzen da. Begiratu behar da irudimenarekin testiguak dioena, deskribatzen duena.

Guk, salbatzen bagara, jakina, heredatzen dugu, nire teoriaren arabera, jakintza unibertsala (santutasuna) eta ondorioz infalibilitatea abentura guztietan (Socratesen teoria famatua), eta hortik, heredatzea zorientasuna, zorientasun perfektua. Eta gureak abenturak dira ez dakigulako a priori, ezezaguna zaigulako etorkizun dena. Hori da nire teoria, edo hobeto, ni-

re esperantza eta nahia. Pozarren jolasteko gogoia Txirritak bertso batean zioen moduan.

Baina, nire teoriari jarraituz, gu libre izango gara, eta miseria askorekin baina libre gara kosmos honetan ere, eta Jainko maiteari soilik dagokio jakitea a priori, libre ere izan arren, eta ahala edukitzea a priori deliberatzeko. Hori misterio santua da, graziarik ez luke kreacioak askatasunik gabe, eta Aita zeruetakoa hor ezberdintzen da kreatura guztietatik, zeren gure Jainkoa terriblea ere baita.

Jesusek, zeina baita maisu gorena, erakutsi digu ahalguztiduna dela mirariekin. Mirariak, eta mirarietan mirariena da bere berpiztea eta zeruratzea; mirarien testigantzak laga dizkigu, eta nik horiek ikertzen ditut: delibero santuak hartzen ditu etorkizunaz, beraz ezagutza unibertsala du, eta ahala ere (errealidade bihurtzen direlako haren deliberoak), eta horrek dakar hutsezina izatea, bere gain hartzen dituen enpresa guztietan.

Hori da nire froga.

Pixka bat ohartzen bada nire irakurlea nire aurreko frogarekin eginari erantsi diot infalibilidade hitza, eta hor atera zait froga berria, Jainko bakarraren ahalguztiduntasunaz.

Ohartxo bat amaitzeko. Nik errebelazioaren historia ere estudiatzen dut nire filosofia osoa egiteko. Egia da topatzen dudana (errebelazioaren testigua sakratua delako), eta egia ere ez da bakarrik kosmos hau baizik eta, errebelazioz, beste kosmos ikusiezina, eta hango nagusia, gure Aita zeruetakoa, deskubritzen dudana Bere tronuan errebelazioaren misterioetan, eta Haren eskuman Jesus Jauna. Hortik ni, esan daiteke, teologian sartzen naiz filosofia alde batera laga barik, izan ere teologia filosofiaren bururatzea da niretzat. Egia nagusia delako dibinitatea, denen gaintik dagoela denaren buru egiten. Eta hori nire filosofia kristaua da. Koadro bat pintatu dut.

Nik aintzat hartzen dut, nire ikerketetan, fenomeno historiko bat, fenomeno natural historikoa, eta hori da Jesusen mirariak eta Jesusen erranak, mirariekin frogatuak. Osteangoek erraten dute hori ez dela aintzat hartu behar ziencia egite-rakoan, eta ezin da aintzat hartu ikerketa materialetan. Baina osteangoek eraikitzen dituzten filosofiak (eta zientzia atea) oso urruti daude nire filosofia kristautik, errealitate ikusezinak ikasten ditut nik. Kosmos ikusezina, errebelazio barik ezinezkoa dena. Eta horregatik erraten da, errebelazioa ez dutela aintzat hartzen ahaztuta, itsututa, horregatik erraten da ez dagoela jainkozko ezer frogatzerik kosmos honetan. Frogaren aurrean ezjakinena egiten dute, eta ez dute aitzakiarik, nirea egiazkoa bada, balekoa jakina, ez dute aitzakiarik.

Niretzat, Jesusen mirariak alde batera lagatzea estudio filosofikoetan, errakuntza da, eta galanta gainera. Egia bilatzen duenak ezin dio horri ezikusi egin, gertatua baita benetan humanitatearen historian.

Galdetzen ahal dit marxista batek zertan ari naizen ez direnak frogatzen, eta nik halakoari, eta edozein eskolako ateori, erantzuten diot aintzat hartzen dudala historia osoa, baita errebelazioarena ere, eta beraiek, ordea, begiak ixteko halako irrika dutela, halako etsaitasuna fededunen kontra, eta haien mundu ikuskera herrena da ondorioz, itxaropenik gabea. Nik kontuan hartzen ditut filosofia materiala eta zientziak, eta euren berba egiten ahal dut edozein arazo materialaz. Baita hiltzeko beldurraz ere.

Eta denon onerako izan dadila, Basarri handiak erraten zuen moduan beraren idazlanak amaitzean.

Roman Garmendia